

Gure giza baliabideak hurrengo hauek dira.

Alde batetik, baliabide finantziarioak ditugu.

- Finantzaketa aukerak: Maileguak edo kredituak hasierako inbertsioetarako eta etengabeko gastuak finantzatzeko. Inbertsioak edo kapital arriskuko iturriak lortzea, enpresa handitzeko edo zabaltzeko.
- Diru-laguntzak: Gure zerbitzua sortzeko hainbat diru laguntza jasoko ditugu. Adibidez, eusko Jaurlaritzaren eskutik, [2025. urtean gazteriaren arloko programak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak](#) eta [Alokairu fomentazioa. Ostatu promozio dotazionalen diru-laguntzak](#).

Beste aldetik, baliabide fisikoak ditugu.

- Lokala: Durangoko Askatasun etorbideko 20an dagoen lokal bat alokatuko dugu. Lokal honek 186 m²-ko azalera du eta 196.000 €tan dago eskuragarri. Metro koadroko prezioa 1.054 €da. Kokapena estrategikoa da gure bezeroak erakartzeko eta gure instalazioetarako sarbidea errazteko.
- Ekipamendu eta tresna teknikoak:
 - Musika tresnak: Pianoak, gitarra akustikoak, xilofonoak, marakak... eta bestelako tresnak.
 - Audio eta erreprodukzio ekipak: Bozgorailuak, mikrofonoak, CD/DVD erreproduzigailuak eta ordenagailuak.
 - Material gehigarriak: Gelak behar bezala hornitzeko tresna eta baliabide osagarriak.

Azkenengoz, giza baliabideak bildu ditugu, gure langileak aipatuz:

- Musikoterapeutak:
 - Laura eta Lexuri→ Musikoterapiaren zentroko irakasleak. Haurren terapian esperientzia duten profesionalak, haur eta familiekin lan egiteko gaitasunekin.
 - Musikoterapeuta kualifikatua→ Musikoterapiaren arloan titulazioa eta esperientzia duten profesionalak kontratatuko ditugu. (gutxi gorabehera 16 euro orduko.)
- Administrazioa eta laguntza:
 - Oier→ Administratiboa, zentroaren eragiketa eta administrazio-lanak kudeatzeko.
 - Maria→Antolatzailea, saioetarako gelak prestatzen eta materialak kudeatzen laguntzeko.

- Laguntzaileak→ Garbitzaileak eta beste administrazio-langileak, zentroaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko kontratatuko ditugu. (gutxi gorabehera 10 euro orduko.)
- Kolaboratzaileak eta aholkulariak: Psikologo edo pediatra bezalako profesionalei kontsulta egiteko aukerak, beharrezkoa izanez gero. Hauek kontratatuko ditugu (13 euro inguru orduko.).